

Ezin da

Igerilekuetan ezin da txiza egin, balkoitik ezin da ura bota, eta parkean ezin da kanpatu. Hemengo arauak dira, ezta? Bada, munduan zehar arau batzuk oso ezberdinak dira. Entzun!

Ameriketako Estatu Batuetan, ezin da Kinder arrautzarik jan.

Singapurren, ezin da txiklerik saldu.

Japonian, tren-geltokietan ezin da selfieetarako makilarik erabili.

Thailandian, *durian* fruta saltzen dute: usain txarra dauka, eta, horregatik, fruta hori ezin da autobusetan sartu.

Ipar Korean, ezin da jeans esturik jantzi.

Suitzan, gaueko hamarretatik aurrera, ezin da zisternarik hustu.

Malaysian, ezin da Luis Fonsiren "Des-pa-cito" kanta entzun.

Eta, adi! Munduko leku batean ezin da hil. Svalbard uhartedian, jaun-andreok, ezin da hil. Hiltzeko arriskua baduzu, hegazkina hartu eta handik atera behar duzu.

Ondo bizi gara hemen, ezta?